

## Marimendiko arratiarrak bueltan dira Bishorn tontorra zapaldu eta gero

11. orrialdea

## Zeanuriko San Justo harexpean jaiak

San Justoko karobia barrero ketan ipiniko dabe zapatuan, abuztuaren 2an, 11:00etatik aurrera, Juan eta Julian Aranagaz batera, Mallorca eta Madriletik etorritako FICAL alkartearen ordezkariak. Auzo bazkaria be egingo dabe egun horretan auzokoak. Hurrengo egunean, erromeriak, Paella Lehiaketeak eta bola jokoak osotuko dabe jaietako programea. 12. orrialdea



## Txotxongilo erraldoi barri bi egin dabez Areatzako tailerretan

13. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 212

2014ko abuztuaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Jai ugari hileon herri eta auzuneetan

Zeanuriko herriko jaiak abuztuko andramariak dira; Areatzakoak, San Bartolome Jaiak, hilaren 24an. Zeberion sandoniak ospatuten dabez urri lehenengoaren hasieran baina jai egitaraua abuztuaren amaieran hasiko da.

**A**buztua kontzertuz, lehiaketa gastronomikoz eta herri kirol erakustaldiz beteta dator. Suak, erraldoiak, kalejirak... klean ondo pasetako sasoia da uda eta horretarako aukerarik ez da faltauko gurean.

Auzune askotan be jaiak izango dira. Egitarau apala izaten dabe

leku gehienetan, baina sano interesgarria askotan. Bediako Murtatzen eta Eroso-Ugarten, Dimako Artaunen eta Olazabalen, Igorreko Urkizun, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon, Zeberioan eta Uxarren be egongo dira jaietan hile honetan.

5., 7. eta 12. orrialdeak



Zeanurizarrak herriko jaietako kalejiran.

Argazkia: Miren Idigoras.

### ARRATIA

## Eskualdeak Suspertzeko Programea ipini dau martxan Bizkaiko Foru Aldundiak

Garagarrilaren 1ean Imanol Pradales Bizkaiko Aldundiko Ekonomia Sustatzeko diputadua Arratiako Udal Mankomunidadean egon zan, Eskualdeak Suspertzeko Programea alkateai aurkezteko. Programa honen bitartez, hamar udalerrietako 65 personaren autoenplegua bultzatuko dau. Partaideak prestakuntzea jasoko dabe eta negozioaren idea garatu eta enpresa sortzeako laguntza tekniko eta diru laguntza be jasoko dabe.

Incoesako beharginak Foru Aldundiaren inplikazioa eskatu eutsien Pradaleseri, euren lanpostuen aldeko burrukan. 7. orrialdea

### BEDIA

## Tren errailbakarra egon zan XX. mendearen hasieran Bedian

Sasoi bateko industrializazio prozesuaren lekukoa izan zan Bediako tren errailbakarra. 1905eko abuztuaren amaieran abiatu zan tren bitxi bat trikili-trakolo Bediako mendietako burdin-meategietatik Eroso-Ugarte auzuneko tren-geltokiko apartaderoraino. Lau kilometroko trenbidea euki eban eta Karpad etxe donostiarak egindako bagoitxoetan berrogeta hamar tona mea eroan ekezan. Probetan 180 kilometro orduko abiadura lortzeako gai ei zan. 8. eta 9. orrialdeak

**Okindegia**  
+ Ke... PAN  
Etxean bertan egindako pastelak

<b>IGORRE</b> Lehendakari Agirre 11 94 656 65 52	<b>IGORRE</b> Sabino Arana 35 94 657 3898	<b>AREATZA</b> Goiko kalea 8 94 608 90 47
--	---	---

**Areatzako jai zoriontsuak opa deusueguz!! Ondo pasau!**

### ZEANURI

## Xorokilgo harrobiaren ustiapenaren kontra dago Gorbeialde Alkartea

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek idatzi bana bialdu dau Zeanuriko Udalera, Bizkaiko Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara, Zeanurin dagoan Xorokilgo harrobiaren ustiapenak, eragin "zuzena eta oso negatiboa" eukiko leukeala abelzaintzan, ingurumenean eta turismoan, eta ustiapen horren guztiz kontra dagoala adierazoten.

6. orrialdea





## ZEURE BERBEA

### Igorreko jaiak herritik eta herrirako!

Igorreko Jai Batzordeak ibilbide luzea dauka. Urte luzez, dozenaka igorretar gara bertatik pasau garano, auzolanean jaiak antolatzen asmoagaz.

Gu herriko alkarte bat gara, independentea. Bertako kidea izateko baldintza bakarra daukana, Igorren lan edo bizitea eta herriko jaiak antolatzen gogoia eta konpromisoa izatea. Ez da izenik, ez ezer emon behar, batzarretara hurreratzeagaz nahikoa da, bakotzak ahal dauan neurrian.

Aurten 63.000 eurotako jaiak antolatu dira eta Udalak 40.000 euro ipini dauz. Jakitun gara, danon parte hartzea barik, danontzako jaiak egitea sano gata dala. Horregaitik, hori hobetzeko asmoagaz, aurten, hainbat ekimen ipini doguz martxan:

- Kiroldegi eta Kultur Etxean, danon eskuragarri, eskariak eta balorazioak jasoteko kuxak izan dira hilabeteetan.
- Apirilaren hasieran jaietako egitaraua itxi orduko, 6 kartel erraldoi ipini genduzan informazio guztiagaz, jenteari atzen ekarpenak egiteko eskatuz eta hurrengo batzorra iragariz. Ez zan ekarpenik egin.
- Aprilean be kartelean jaiak izentatzeko galdeketea egin genduan.
- Facebook eta igorrekojaitzordea@gmail.com be, martxan egon dira ekarpenak batzeako.

Behar honeguz, programa zabala eta jente gehiagoren gustukoa egiten ahalegindu gara. Horrek ez dau esan gura dana ondo egin dogunik edo danean asmatu dogunik.

Horren adibidea da aurtengo jaietako kartela. Santua jaietan murgildu genduan, guk ez genduan iraingarria zan ezegaz be lotu. Halanda be, irainduta sentidu diran igorretarrak egon dira eta hori ez dago ondo. Fede txar barik jokatu da eta aurretzean kontuan izango dogu aurtengo ikaskuntzea.

2014ko bagilearen 26ko DEIA eta garagarilaren 1eko BEGIRUN Igorreko EAJ-PNVk sektarismo bako jaiak euki daiguzan, bardintsunean oinarritutako eta sensibilitate zein sinesmen guztiak errespetauko dabean jaiak eukiteko asmoz ardura hartzea eskatuten eutsan Igorreko Udalari.

Emoten dau EAJ-PNVrentzat aurtengo jaiak sektarioak, bardintsun eta sensibilitate zein sinesmen guztiak errespetau bakoak izan dirala.

Hile guzti honeetan, EAJ-PNVkoak Jai Batzordera ez diranez agertu eta medioetan kritikau egin gaituenez, gu hurbildu ginan 2014ko bagilearen 30eko plenora. Desadostasun batzuk gora behera, orokorrean gure lana begi onez ikusten ebela-eta, zoriondu egin ginduezan.

Garagarilaren 3an balorazio batzorra egin genduan. Bertan 20tik 70 urte bitarteko 22 lagun batu ginan.

Orokorrean jaiakaz sano pozik gagoz, nahiz eta onartu datorren urterako hobetuteko asko daukagula. Beharrean gabiz. Jai Batzordetik izan doguzan jaiakaitik igorretar guztiak

zoriontzen doguz eta datorren urterako prestaketetara etorten animau.

### IGORREKO JAI BATZORDEA

### Palestinaren alde badaukagu zer egin

Uda honetan, goizero, Gazaren kontrako eraso militarren barriakaz itxartuten gabiz. 20 egunean, 1000 persona baino gehiago hil dauz Israelek Gazan, horreetatik % 10 baino gehiago umeak dira. Ospitaleak, gotorlekuak eta kultu lekuak be ez deutseez errespetetan. 1948ko okupaziotik, harresiak eta koloniak eregiten, eta hilketa eta atxiloketakaz batera herri palestinarra zapaltzen segiduten dabe. Gaur egun, herri palestinarren % 88 okupata daukie eta bestea, munduko kartzelarik handiena bihurtu dabe. Mugak eta harresiak alde guztietatik dagoz, herritar palestinarren eta beste herrialde batzuetatik datozen baliabideen joan-etorriari trabak ipinita. Hori gitxi ez eta bertako baliabideak ostu edo kutsatu egiten deutseez. Orain dala 4 urte, bertan egon ginan, egoera latza bertatik bertara ezagutu eta Ni'Lin herri palestinarraz senidetzeko. Herriko gunetik harresia altxau eta ortu guztiak sionisten alderdian itxi dabez, palestinarrek gose eta miseria kondenaaz. Hangoak gauza bi eskatu euskuezan: euren herriko egoerearen barri emotea eta Israeleri boikota egitea. Israeleri boikota, kolonizazio, Apartheid eta garbiketa etnikoaren kontra zuzendutako kanpaina da. Genozidio honen aurka, asko daukagu egiteko. Israeleri edo Israelegaz kolaboretan daben enpresen produktui boikota eginda. Adibidez, barra kodeko lehen zenbakiak 729 daukiezan produktuak ez erosi (informazio gehiago [www.israeliboikot.org-en](http://www.israeliboikot.org-en)). Boikotaren estrategiak Hegoafrikan apartheid-agaz amaitzen lagundu eban. Herri palestinarri askatasunerako burrukan lagundu deiogun!

GOTZONE AMURIZA ETA GALDER OLIBARES

## ERETXIA



MIREN MADARIAGA  
AEK-ko teknikari eta irakaslea

### Euskalduna izatetik euskalari izatera

Datu soziolinguistikoen arabera, atzen 30 urteetan euskerearen ezagutzeak hazkunde nabarmena izan dau Euskal Herrian. Euskerearen ezagutzearen hazkundera, belaraldi gazteenen artean gertatu da, batik bat, eta honek esan gura dau, hemendik 20 urtera, euskal gizartearen 55 urtez azpiko biztanleriaren % 70 euskalduna izango dala.

Erabilereari jagokonez, hazkundera nabarmenena eremu formalean (udaletxeetan, osasun zerbitzuetan, lan munduan) emon da batez be, eta ez horrenbeste eremu ez formalean (etxean, lagun artean, bikotekideen artean).

Datu horreek sano esanguratsua dira, izan be, zein da gure asmoa? Euskerea ezagutzen eta menperatzen daben hiztunak egotea edo sortzea ala euskalariak zein euskalari komunitate handitutea?

Hizkuntza ikasteaz gainera, hizkuntza hori erabilteko beharriaz badago? Euskaltegiak ikasleak behin euskaldunduta euskeraz bizi dira? Euskaldun zaharrak euskerea erabilten dabe? Gure eskola eta institutuak euskerea ezagutzen dabenak kalean zein hizkuntza erabilten dabe? Hori guztia kontuan hartuta zelan bermatuko dogu erabilera?

Eremu formalean euskerearen erabilera handitutea sano positiboa da, euskeraz egiteko gure

barriak dagoz eta horreek erabilten diran seinale da. Halanda be, etxean, lagun artean, bikotekideagaz... ez da igoerarik igarri. Erabilera informala da, atzen baten, gure eguneroko bizitzan dogun hartu-emonik naturalena eta esparru hori da jentartean gertatzen dan hizkuntza-ohituen islarik nabarmenena.

Hizkuntza-ohiturak gaztetatik errotzen dira eta oso nekeza da (eta konpromiso handikoa) aurrerago aldatutea. Gaur egun ordea, gazteentzako euskeraz berba egitea ez da "guay" a, beraz, ez dabe erabilten. Ez dakit euskerea ez ete garan irakuntza esparrura lar mugatuten. Izan be, ume zein gazte askok esparru horregaz baino ez dabe lotzean euskerea.

Datu horreek kontuan hartuta garrantzitsua da herritarren eta gizartearen arlo batean edo bestean eredarri diranen atxikimendua, gogoia eta hizkuntza konzientzia lortzea, hain zuzen be, euskeraz dakienak euskerea erabilera bultzatzeko, helburua euskaldunak euskerea erabiltea da eta, hau da, euskaldunak euskalari izatea.

Gaur egun oraingoz bizi dogun hizkuntza elebitasun desorekea ez da bakarrik gaudituko. Beraz, egin egin behar da, desorekea ez da-eta bere kabuz desagertuko. Euskeraz biziteko nahia, gogoia behar dogu.

Batzuetan, eguneroko errutina eta ohiturak euskeraz biziteko aukerak murrizten deuskuez. Euskeraz biziteko aukera gehiago izateko Arratiako udalak erabilera areagotzeko guneak sortzean eta elikatzen dabiz (Berbalagun adibidez). Horreek izango dira euskeraz biziten hasteko abiapuntu moduan baliatu behar doguzan arnaguneak.

Euskerearen etorkizuna inoz baino gehiago euskaldunengan dago, izan be, euskaldunak dira euskalari izateko ebatzia hartu daikienak, euskerearen etorkizuna bere esku daukienak.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGIRUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Ziringatu



Orain udan elikagai elaborau batzuek, txokolatea, ahia, izozkiak eta antzeko jangarri gozoak besteak beste, beroaren edota denporearen eraginagaitik euren egoera solidoa galdu egiten dabe. Horixe da ziringatu berbearen esangurea (siringatu, agoskatuta). Gehienetan gura ez dan efektu kaltegarria izaten da, hurrengo esaldian esaten dan lez: "Kafesne tarterearen beroagaz ziringatu jata ondo-ondoan euki dodan txokolatezko tabletea".

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Enbata Batz 50 urte

MONDRAGON 322

**LUMATUTEN****IDOIA EIZMENDI****Letxugea eta azerbea**

**B**adira hogeta hamar bat urte barazkijalea nazala. Imaginako dozuenez, etetik kanpo bazkaltzea ez da gauza erreza izan, gehien bat lehenengo urte hareetan, eta hamaikagarrenez, tortilla eta ensalada jan behar izateari, askotan, bazkaldu bitartean zeure jateko ohitura eta filosofia defendidu behar izatea gehitu behar jakon.

Jentearen jakinmina dala, edo zeozertaz berba egiteko atxakia dala, gauzea da, bizitzearen ordu asko joan jatazala gai bakar horren inguruko itaunak entzun eta erantzunez. Zergaitik zara barazkijalea, osasun arrazoiakaitik edo politikoakaitik? Ez zara aspertzen letxugea eta azerbea bakarrik jaten? Barazkijalea... eta ardoa edaten? Letxugak be ez dira izaki bizidunak, ba? Baina, behin okelea jateagaitik ez jatzu ezer pasauko, neska! Eta tipikoena: ia zer egiten dodan

proteina nahikoa izateko.

Berbaldi honeen nondik norakoak errez asmatu daitezke antzeko patroia izaten dabelako, bai euren itaunak baita nire erantzunak be, baina badira bi, oso gogoan daukadazanak. Behin, Valladolideko herrixka batera lagun bat bisitetan nengoala, barreari eutsi behar izan neutsan bere amak, harriduraz, Ama Birjineari egindako promesa bat ete zan galdetu eustanean. Beste behin, Zaragozatik nenbilen banatzaile alternatiboen topaketa batzuetan eta lagun baten etxean lo egin neban. Goizetik, aje handiagaz nengoan, eta armosetan ginala, pateaa pasau eusten, "begeta" nintzala esatean, gazte bateri alaitu egin jakon arpegia eta zera bota eustan: "Zer egin behar da barazkijalea izateko?". Berehala konturatu nintzan benetan ari zala eta ezin neutsala kale egin, beraz, topiko guztiak baztertu eta ajea albo baten itxita, ahal neban moduan erantzun egin neutsan.

Dana dala, hamarkada honeetan gauzak aldatuten joan dira, lehen, bazkaria eskatzeko ohiko negoziazioan barazkijalea nintzala esanda be, askotan entsaladea bueltatu behar izaten neban sukaldera atuna eukalako, gaur barriz, behin baino gehiagotan, barazkijalea zarala esan eta zerbizariak "Begetarianoa edo beganoa?", preguntau deusta.

**ZERTZEAN****AINHOA MENDIA****1**

Hamabostero deku gure buzoietan bailarako barriek danori kontetan gu oin urte bat edo hasi ginen hontan makine bat etxetan BEGITU banatan.

**2**

Batzuetan eguzki, besteetan euri egie esan, horrek bardin deusku guri arpei ona imini denpora txarrari kotxea hartu eta ein gogor lanari.

**Gaia jarrita: "Banatzaileak esana"****3**

Lagunek ginan lehendik lagunek oraindik lan honek batu gaitu barren-barreantik momentuz ezteko izteko gogorik enaunke segiduko honetan zu barik.

**4**

Jente askok kexea, baita arpei txarra "nik hori eztoz gure" guk entzun beharra batzun kontue be, iziten da larra askotan pizten jaku barreneko garra.

**5**

Xelebrekeriek ta kuriosidadeak istori ederrak dire askotan gureak sarriten eiten doguz bai geuk be barreak txakurrek ezpadire, dire hain jabeak.

**6**

BEGITUe eskure emoten danean poz handie pizten da gure barrenan batez be, ezezaunek haxe dinonean: "eskerrik asko pitxin, ta kontuz bidean".

**BEGI TXINDORRA**

**A**EK-ko bizikletazko barnetegi ibiltarian ateratako argazkia izan da hartu dogun lehena. Miren Madariagak bialdu dau Argazki Lehiaketan parte hartzeako eta "Hitza dogu arma" dauka izenburu. Iruñea inguruan ateratako argazkia da berau.

Lagun birentzako astegoiena landetxe baten da saria. Animau zaitze, beraz, zuen 2014ko oportetako argazkiak begitu@topagunea.com helbidera bialtzen. Argazkiaren titulua eta nor, non eta noz atera dauan argazkia esan behar da eta partaide bakoitxak gehienez hiru argazki bialdu ahal ditu.

Zeuen biaje eta oportetako momenturik onenak geugaz konpartiduteak saria dauka!



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Odonatologia  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalegata Zentzuak 100  
R.P.S. 21/06

**FISIOTERAPIA** **Sasobide**  
**Balneario Areatza**  
Tania Fernandez Santiago  
COL. 1718  
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

## ZEANURI

# Txistu eta trikitixearen soinuak andramarietan



### Erredakzioa

Goizetan kalejirak, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketea Andra Mari egunean, trikitixa eta txistua protagonista izango dira herriko jaietan. Frontoiak be izango dau protagonismoa eskupelota partiduak dagoz-eta eguen eta zapatuan. Erromeriak, kuadrilen arteko herri kirolak eta umeentzako magia be egongo da Zeanurin, ondo pasetako pentsautako beste ekitaldi askoren artean.

Eguenean, Andra Mari egunaren bezperan, Eskean Kristo, Arcada Social eta Triki ta Ke taldeen kontzertuak izango dira. Gau horretan, 02:30ean eta 04:30ean, Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da.

### Abuztuak 13, eguaztena

18:30ean, Futbol 11. Zeanuri-Ubide, Undurragak zelaian.

### Abuztuak 14, eguena

**11:00**etan, umeen parkea plazan.  
**12:30**ean, Maratoi Txikia.  
**14:00**etan, txupinazoa eta hiru zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.  
**15:00**etan, herri-bazkaria.  
**17:00**etan, eskupelota partiduak. Zeanuriko umetxoen banakako txapelketea. Hirugarren eta laugarren posturako: Maddi Esparta-Jaime Alonso. Finala: Eleder Galartza-Bingen Beitia. Umeen eta gaztetxoen partiduak: Umeak: Iker Olibares-Eneko Artaraz/Uriarte (Orozko)-Eskuz (Areta). Mutikotoak: Anton Erkiaga-Sainz (Galdakao)/Iglesias (Zaratamo)-Maren Ernaldi. Mutikotoak: Beñat Etxeita-Olabari (Usansolo) Mardaraz (Zaratamo)-Imanol Urigoitia. Atutxa (Zomotza)-Lander Erkiaga/Muguruza (Areta)-Anitua (Lea Ibarra).  
**18:30**ean, rally-triki-poteoa.  
**20:00**etan, mezea eta salbea.  
**22:30**etan, kontzertuak: Eskean Kristo, Arkada Social eta Triki ta Ke.

### Abuztuak 15, barikua

**11:00**etan, kalejirea herriko txistulari eta trikitilariakaz.  
**11:30**ean, mezea.  
**17:30**ean, auzuneen arteko Futbol 7ko finala Undurragak futbol zelaian.  
**19:00**etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXIV. Txapelketea plazan.  
**21:00**etan, kuadrilen arteko herri

kirolak.

**22:30**ean, Xaibor-en show miresgarria.

### Abuztuak 16, zapatua

**San Roke eta sukaldarien eguna**  
**11:00**etan, kalejirea txistulariakaz.  
**11:00**etan, sukaldari lehiaketea.  
**11:30**ean, arimen mezea.  
**14:30**ean, bazkaria plazan.  
**16:30**ean, Zeanuriko Andra Mari jaietako I. Mus Txapelketea.  
**17:00**etan, eskupelota partiduak. Kadeteak: San Jose (Arrigorriaga)-Asier Ibarrondo/Estrada (Usansolo)-Ugarte (Amurrio). Zeanuriko auzuneen arteko 4 1/2ko txapelketako finala. Nagusiak: Beñat Mendia-Ansotegi (Markina)/Erik (Lemoa)-Pujana (Markina).  
**19:30**ean, Asier Kidam magoa.  
**22:30**ean, play-back-a. Ondoren Luhartzegaz erromeria.

### Abuztuak 17, domekea

**Jubiladuen eguna**  
**11:00**etan, kalejirea txistulariakaz.  
**12:30**ean, herriko jubiladuentzat kopaua plazan.  
**12:30**ean, binakako lasterketea.  
**13:00**etan, "Aipamen Eguna" eta, ondoren, Mixel Lekuonari omenaldia. Aurrekua eta bertsolariak plazan. Ondoren, herri bazkaria frontoian.  
**18:00**etan, mozorroak eta jokoak.  
**20:00**etatik **21:30**ak arte, Lotxo taldeagaz erromeria.  
**22:00**etan, Zeani antzerki taldearen emonaldia: *Dantzara*.  
**23:30**etik **00:30**ak arte: Lotxo taldeagaz erromeria. Ondoren, txokolata danontzat eta hiru zubiak eginez, aurtengo Andra Mari jaiak amaierea emon.

## AREATZA

# Suak, tanborradea eta Erraldoi eta Buruhandiak

### Erredakzioa

Ikuskizun bi eskeiniko ditu Astondoa Piroteknika Areatzako jaietan. Areatzako Bandeagaz batera Musikasua hilaren 26an, martitzenean eta suak kanpandoretik 30ean. Atzen egun honetan tanborradeak kalejirea egingo dau, umeena arrastiko seiretan eta nagusia goizaldeko ordu bietan izango da. Erraldoiak, Buruhandiak eta tailerretan egingako bost txotxongiloak kalejirea egingo dabe herrian zehar.

Gazte Olinpiadak hainbat froga izango ditue: karretila igoerea, burdi karrera edo estropadak. Kontzertuak jagokienean, Materia Gris eta Betagarri taldeak egongo dira 29an, barikuan. Gau horretan, autobusa egongo da 02:30ean eta 04:30ean, Arratiako beste herrietara itzultzeko kotxea hartu behar izan barik.

### Abuztuak 23, zapatua

**14:00**etan, txupina. Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako txistulariak, Areatzako Musika Banda eta Agoladako Udal Musika Banda (Galiza).  
**17:00**etan, karretila igoerea. Gazte Olinpiadak.  
**18:00**etan, Batukale taldea.  
**20:00**etan, Salbe herrikoia. Jarraian Hilarion Eslavaren *Salve Regina* Luis Iruarizaga Abesbatzak eta Lagunak.  
**22:30**ean, erromeria Akerbeltz taldeagaz.  
**23:30**ean, XXI. Play-back Lehiaketea.

### Abuztuak 24, domekea

**06:00**etan, mortero jaurtiketea.  
**07:00**etan, txistularien kalejirea.  
**11:30**ean, meza nagusia.  
**12:00**etan, kalejirea. Erraldoi eta Buruhandiak, eta Txotxongilo erraldoiak.  
**13:00**etan, ohorezko aureskua.  
**13:15**ean, kontzertua: Areatzako Musika Banda eta Agoladako Udal Musika Banda (Galiza).



**18:00**etan, eskupelota partiduak. Gazteak eta afizionauak.  
**22:00**etan, kontzertua Zubizarra plazan, Xabi Aburrizaga Trio.  
**23:30**ean, DJ Urbietak.  
**03:00**etan, txokolata, presoen aldeko txosnak antolatuta.

### Abuztuak 25, astelehena

**11:00**etan, animen aldeko mezea.  
**11:00**etan, umeen jantzak, kalejirea heritik zehar, guraso alkarteak antolatuta.  
**12:00**etan, umeen jantzak plazan.  
**13:30**ean, kopaua 3. adinekoentzat.  
**14:00**etan, burdi karrera. Gazte Olinpiadak.  
**15:00**etan, gazte bazkaria.  
**17:00**etan, Briska Txapelketea. Upa-jubiladu alkarteak antolatuta.  
**19:30**ean, musikea 3. adinekoentzat.  
**19:00**etan, Rally poteoa.  
**22:30**ean, kontzertuak Gaztetxean.

### Abuztuak 26, martitzena

**11:00**etan, jolasak igerilekuan.  
**13:30**ean, Paella Lehiaketearen aurkezpena.  
**16:30**ean, Arte tailerra. Eskumuterrekoak, paparrekoak, zermikea...  
**19:30**ean, umeen play-back-a.  
**20:30**ean, disko festa umeentzat.  
**22:15**ean, Musikasua sakramentinoetan. Areatzako Banda eta Aston-

doa Piroteknika.

### Abuztuak 27, eguaztena

**11:00**etan, orientazio tailerra Lamino Mendi Taldeak antolatuta. Frogak ume eta gazteentzat.  
**13:00**etan, Sukaldari Txiki Eguna. Umeentzako sukaldaritz tailerra eta bazkaria. Areatza Kirol Kultur Batzordeak antolatuta.  
**16:30**ean, mahai jolasak umeentzat: ugela, partxisa, ping-pong-a...  
**17:00**etan, Mus Txapelketea Batzokian.  
**20:00**etan, kale antzerkia *Hermanos Inconfundibles* Añibarro parkean.  
**22:00**etan, Areatza Kantuz plazan.

### Abuztuak 28, eguena

**11:30**ean, paseoa bizikletan. Iturrimorro Txirindulari Taldeak antolatuta.  
**12:00**etan, Zulatu herri kirol tailerra.  
**17:00**etan, Tute Txapelketea Motxo tabernan.  
**20:30**ean, Tortilla Lehiaketearen aurkezpena.  
**21:30**ean, afari herrikoia.  
**23:00**etan, MAR-IS-KAL DJAI-gaz festa.  
**24:00**etan, aulki jokoa plazan.

### Abuztuak 29, barikua

**12:00**etan, kalejirea Bizkaiko Gaiteruakaz. Erraldoi eta Buruhandiak.  
**13:30**ean, Makailao Lehiaketearen aurkezpena.  
**16:00**etan, pelota tailerra umeentzat.  
**17:30**ean, pala eta zesta partiduak.  
**20:00**etan, poteo-rock Orkestra taldeagaz.  
**21:00**etan, gazte estropadak. Gazte Olinpiadak.  
**22:30**ean, kontzertuak Materia Gris eta Betagarri taldeakaz. Jarraian Disc Breakers.

### Abuztuak 30, zapatua

**18:00**etan, Tanborrada Txikiaren kalejirea.  
**22:30**ean, kuadrilen desfilea eta suak. Areatzako tanborradea, kuadrilen desfilea eta Astondoa Piroteknikagaz suak kanpandoretik.  
**00:00**etan, erromeria Honat taldeagaz.  
**02:00**etan, Areatzako tanborradearen kalejirea.

Zeanuri  
Jai batzordeak eta Zeanuriko Udalak  
Gora Andra Mariak!  
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Areatzako Udala  
Jai batzordeak eta Areatzako Udalak  
Gora San Bartolomeak!  
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

## ARRATIA

## Ingurumenaren defentsan parte hartzeako mozinoa

## Erredakzioa

Arratia Bizirik, Ganzabal Mendi Taldea, Suzien Mendi Kluba eta Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen Elkartek, ingurugiroaren defentsarako herritarren parte hartzea sustatzeko mozinoa aurkeztuko dabe Arratiako udaletan.

Parte hartze hori sustatzeko lau gauza eskatzen dabez: Udalak uko egitea herria informau eta kontsultau barik ingurugiroa kaltetuko dauan edozein egitasmo, jarduera edo azpiegitura aurrera eroteari; osasuna zein bioaniztasuna arriskuan dagozanean zuhurtasun eta aurrezaintza printzipioak kontutan hartzea; produkzio sisteman eta azpiegitura estrategikoen diseinuan herritarren berbea kontuan hartzea eta komunitadearen interesak interes partikular eta finantziarioai gailentzea, eta herritarren ebatziak errespetetea, hain zuzen be.

## AHTaren kontrako bizikleta martxa

Bestalde, garagarriaren 26an,

Mugitu AHT Stop mobimentuak antolatutako AHT-ren kontrako II. Bizikleta Martxa Desobeditzailea pasau zan Lemoa, Igorre eta Dimatik eta hainbat arratiarrek be hartu eben parte protesta honetan.

Txirindulariak ordu bi terdiak inguruan heldu ziran Lemoara eta geldiuena egin eben Lemoretan. Karbie Gaztetxean bazkaria egin ondoren, arrastian Elorriagara igo ziran oinez. Ostean Igorrera joan ziran partaideak. Igorren ondortoria egin eutseen eta Arratiako harrobien gaineko informazioa emon. Artadi mintegira bisitea egin eben gero partaideak, eta Dimako Gaztetxean afaldu eben. Hurrengo egunean Dimatik Galdakaorantza abiatu ziran, goizeko bederatzirak aldean.

Bizikleta martxa hau 8 egunetako itzulia da, garagarriaren 25ean hasi eta abuztuaren 2an amaituko dana. Durangaldetik abiatu eta Arratia, Txorierrri, Urdaibai, Uribe Kosta, Ezkerraldea, Enkarterriak eta Hego Uribetik pasetan da, AHT-ren kontrako aldarria zabaltzen.

## LEMOA

## Igaz baino material gehiago topau dabe Lemoatxeko trintxeretan

## Erredakzioa

Aurreko udan lortutako arrakasteari jarraipena emonaz, Lemoako Udalak Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean nazinoarteko auzolandegiak antolatu ditu "Auzolandegiak 2014" programearen barruan. Auzolandegien helburua Lemoako Memoria Historikoa berreskuratzea da eta kultura aniztasuna landutea partaide eta herriko jentearen artean. Helburu honek lortzeako hamabostaldi bi antolatu dira: lehenengoa ga-

ragarrilaren 16tik 30era izan da eta bigarrena abuztuaren 1etik 15era izango da.

Garagarrilean, gazteak "zati barria garbitu dabe eta bertan igaz baino material dezente gehiago agertu da. Orain zakuak ipiniko dabez lubakiak zelangoak ziran erakusteko" azaldu deutso BEGITU Mikel Garcia Lemoako Gazte teknikariak.

Abuztuko lehen hamabostaldian be lubakiak berreskuratzen egingo dabe behar Euskal heritik eta atzeritik etorritako beste 20 gaztek.

## ARRATIA

## Arratiatik Begoñara oinez Andra Mari bezperan

## Erredakzioa

Andra Mari egunaren bezperan, abuztuak 14, hainbat arratiar oinez abiatuko dira Bilbora Begoñan mezea entzuteko. Han, lehenengo mezea goizaldeko

04:00etako entzungo dabe errromesak lau orduko ibilaldia egin ondoren. Atzenengo urteotan arratiarrak ez dira lehengo moduan batzean Igorren alkarregaz joateko, baktaxa bere aldetik joaten da.

## AREATZA

## Errekako lanak aurrera doaz, Zubizarra botata

## Erredakzioa

Areatzaren itxurea asko aldatuko daben obra bi dagoz martxan herrian. Zubizarra bota dabe eta uriolak ebitetako, errekan zutaberik eukiko ez dauan zubi bat egingo dabe. Eta herrian sartzeako egoan harri itxurako zoladurea aldatuten dagoz asfaltoa ipinteko.

Garagarriaren 18an, URA Ur Agentziak Areatzako Zubizarra zubia bota eban, uraren bidea libreago iteko eta herri barruan uriolarik gertatu ez daiten. Izan be, ibaiaren ibilgua kapazidade gixikoa da herri barruan eta zubiaren zutabeak ibilgu hau oraindino gehiago txikitzen eban. Errekan zutaberik ez daukan zubia egingo dabe orain honen ordez.

Hau ez da errekearen inguruko aldaketa bakarria izango. Izan be, erreka habitata errekeru gura dabe herri barruan eta horretarako erreka ondoko zugatz autoktonoak landutako ditue bazteretan. Gainera, bisoi europarrarentzako pasabideak be egingo dabez Arratia ibaiaren zati honetan. Bisoi europarra galtzeako arriskuan dagozan espezieen kategorian dago eta Bizkaiko erreka inguru batzuetan lanak egiterakoan, neuri espezifikoko eskatzen ditu bisoi europarraren kudeaketa planak. Babes neuri horreetako bat dira pasabideok.

Inguru barritatuaz disfrutau ahal izateko pasealeku bat egingo dabe Arratia ibaiaren hegalean.

## Zoladura gogorragoa sarreran

Herrigune historikoaren sarreran egoan harri itxurako zoladurea kendu eta asfaltoa ipinten dabilz Areatzan. Orain dala zortzi bat urte ipini eben, autoen abiadurea moteltze asmatan, baina errez hondatzen zan eta mantenimentu handia behar eban. Asfaltoa erretxina geruza batez ipiniko dabe orain. Gogorragoa izateaz gainera bibrazioa eragingo dau, gidariak jakin dagien zona horretan lehentasuna oinezkoak daukana.

## ZEANURI

## Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea Xorokilgo kanterearen ustiapenaren kontra dago



Arratia Bizirik-ek Xorokilera antolatu eban urtekerea.

## Erredakzioa

Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartek jakinarazo deutse Zeanuriko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, Xorokilgo harrobiaren ustiapenak, eragin "zuzena eta oso negatiboa" eukiko leukeala abeltzaintzan, ingurugiroan eta turismoan, eta ustiapen honen guztiz kontra dagoala.

Gorbeialdek antolatutako ekimenetan, udalak be parte hartzean dabe eta orain arte dantozako onuragarria izan dala hau dinoe Gorbeialdetik. Orain, Zeanuriko Udalean, Xorokilgo parajeen, kantera bat zabaltzeko posibilitate legala dago eta jardurea hasteko baimen administratibo batzuk euki arren, Udalari eta Aldundiari bialdutako idatzien arabera, "mota honetako azpiegitura batek kalteak baino ez dakar" Gorbeialdek defendidu beharreko sektoreetan.

Zeanuriko Udala, Gorbeialde

Landa Garapenerako Alkartearen barruan dago Gorbeialderen sorreratik eta harrobia ez ustiatzeko "gestino politikoren bat egin ahal dauala" uste dabe, Gorbeialdekoak. "Benetan hori egiteko" eskatzen deutso Gorbeialdek Zeanuriko Udalari.

Harrobiaren ustiapenaren kontrako 600 alegaziotik gora aurkeztu eban Arratia Bizirik taldeak eta alegazioten artean "atzera egiteko modukoren bat balego", atzera egingo dabela esan eutsan Izaskun Sagarna Zeanuriko alkatetaren BEGITU.

## Gorbeialde

Gorbeialde Alkartea, beste Landa Garapenerako alkatetaren lez, lehen sektoreagaz lotutako ekimenak bultzatzeko sortu zan. Udala, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean dabil aspaldi honetan. Ingurugiroak eta turismoak erlazino handia daukiela lehen sektoreagaz eta alkarrerri on egiten deutseela dinoe.

## BEDIA

## Pelotalekuak su hartu eban

## Erredakzioa

Garagarriaren 10ean, Bediako frontoiko teilatuak su hartu eban. Suteak kalte handiak eragin ebazan baina ez eban inor zauritu nahiz eta momentu haretan gaztetxo talde bat eta euren jagoleak bertan egon. Sua arrastiko

17:30ak aldera hasi zan eta suhiltzaileak pare bat ordu behar izan eben sua amatetako.

Iturri ofizialen arabera, gaztetxoak ez ziran arriskuan egon, sua hasi zanean, jagoleak ebakuau ebezalako. Teilatua sano kaltetuta izan bada be, hormigoizko egitureak ez eban kalterik izan.




Suhiltzaileak sua amatetan. Argazkia: Leire Etxazarra.



## BEDIAKO TRENA

# Bediako tren errailbakarra. Sasoi bateko industrializazio prozesuaren lekukoa

XIX. gizaldiaren akaberan Arratiako txoko batzuetan be jazotako industria iraultzeak jarduera, bizimodu eta garraio barri eta modernoak ekarri ebazan; besteak beste Bediako trenbide errailbarkar industrialia.



Irlandan, Listowell eta Ballyunion-en artean tren errailbakarra egon zan.

## Alvaro Rabelli

Ez ziran urte asko pasau behar izan, Bilbo inguruan batez be, XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera biztutako industria iraultzea ia Bizkaiko bazter guztietara zabaldu eitean. Arratia be ez zan horretan salbuespena izan eta ordura arte nagusi nekazaritza eta abeltzaintzari lotuta bizi izan zan gizarte tradizionala goitik behera aldatzen hasi zan. Holan bada, industria modernoagaz zerikusia eukien jarduerak, baserri tradizio-naletik urruntzen ziran bizimodu barriak eta garraio bideetan izan-dako aurrerapena dira iraultza horrek ekarritako ondorioetako

batzuk. Atzen arlo horretan, garraioetan hain zuzen be, upele-tako iraultzea jazo zan eta Arratiak sasoi haretako garraio-sistematik modernoak euki ebazan, baita, Bediako trenbide errailbakarraren kasuan lez, bitxienetakoak be. Sano ezagunak jakuz Arratiako tranbia elektrikoa, XIX. mendearen akabutik 1964ra arte ibili zana, edota hamarkadaren bat lehenago arratiarrak ezagutu ahal izan eben trena, orduan "Ferrocarril Central de Vizcaya" eta gaur egun Eusko Tren. Bediako trenbide errailbakarra, ordea, ezezagunagoa da, ahiztutako industria ondare galdua, bitxikeria bat, beharbada tren industrialia baino

ez zalako izan. Baina, gogora ekarteak badauka, euki be, garrantzia, eta ez edozelangoa gainera. Izan be, Bediako trenbide errailbakarrak badaukaz berezi-berezi bihurtzen daben ezaugarri bi: alde batetik, estadu osoan egon zan "Lartigue" deritxan garraio-sistema bakarra izan zan, eta bestetik, gasolinaz ebilen lehen trena izan genduan. Bediako trenbide errailbakarra XX. gizaldiaren hasikerako urteetan eregi eben Bediako burdin-meategietatik mea Eroso auzuneko kargalekura eroateko. Horixe zan bere eginkizuna.

## Bediako "gamelua"

1905eko abuztuaren amaie-

rako goiz baten tren bitxi bat trikili-trakolo abiatu zan Bediako mendietako burdin-meategietatik Eroso-Ugarte auzuneko tren-geltokiko apartaderoraino. Agurtzen hurreratu ziran auzokideai "game-lu" antzekoa begitanduko jakien. Lehentxoago, meategietatik urten baino lehen, meategietako zuzendaria eta ingeniaria zan Martin Gaitan de Ayala jaunak tren horren lokomotora txikerra martxan ipini eban, maratila bateri gogor eraginda gasolinaz ebilen motorren pistoiak biztu ebazan eta ke baltz baten bufadea bota ondoren konboiak Erosorako bidea arin hartu eban. Inagurazino ekitaldia zan. Egun horretan bakarrik tren honek bidaiariak eroan ebazan, harrezkero "Sociedad Minera de Yurre" dalako enpresek ustiatzen ebazan piritak garraiatu ebazan.

Garraio bide horren gauzatzailea Martin Gaitan de Ayala bera izan zan. Meategietako garraio beharizanak betetearren, enpresako arduradunak Charles Lartigue (1834-1907) ingeniari frantsesak XIX. mendean asmatu eban garraio-sistemari berehala erreparau eutsien. Izan be, garraio bide honek baeukazan hainbat abantaila sasoi haretako enparauko garraio bideen aldean, batez be bere instalakuntza eta mantentmentuaren kostuari jagokonez. Funtsean, "Lartigue" sistema errail bakarra daukan trenbide batetik doan trena da. Errail hori, haga luze baten antzekoa, lurretik, zutabe batzuek eutsita, altxetan da. Halanda be, "Lartigue" sistemearen berezitasuna, bestelako tren errailbakarretatik bereizten dauana, bagoiak eroateko posizinoan datza. Berauek, errailaren alde banatan zintzilikatzen dira,

Bediako tren  
errailbakarra 180  
kilometro orduko  
abiadura lortzeako gai  
ei zan

**BOXPAL**  
618 59 81 71  
Pintura lanak  
Iturgintza  
Instalazio elektrikoak -aberiak  
lehoi eta ateen konponketa  
Pertsiana konponketa  
Igeltzerotza  
E-posta: boxpalboxpal@yahoo.es

**OPEL**  
Ibaigane, s. Coop. Ltda.  
Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Bizkaia)  
Tfn. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15


Bizkaifisios SLk  
bi zentro ditu  
Fisioterapia  
Zentroa  
Igorre  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08  
Andra Mari  
Klinika  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1 Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64  
www.bizkaifisios.com

Zugaitik BEGITuten dogu  
A.P.I. 495  
www.inmobiliariaarrea.com  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

946.319.008  
658.195.091  
Sartu eta ikusi!  
GALANTA  
zure barruko arropa  
M. JOSE  
barrutik janzen zaitu  
Agirre Lehendakaria 23  
48.140 Igorre  
galanta@hotmail.es

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiako tentsioa  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Olaetxe  
Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es





Mea eroateko erabili zan Bediako tren errailbakarra. Irudian lehenengo biajea.

zamari batek darozan otzaran handi bi legez; horregaitik game-luaren trazea. Bagoiak eroateko posizino hori, hain zuzen be, atzanean arazo larria bihurtu zan sistema honetarako, beti orekan egon behar ebelako, zamegaz alkarr kontrapisua eraginez, ezpabere, albo batera jausteko arriskua egoan, batez be bagoietako bat hutsik joanean.

Bediako tren errailbakarrak ez ei eban arazo hori euki, beti zamatuta behar egiten ebalako. Lau kilometroko trenbidea euki eban eta Karpad etxe donostiarrak egindako bagoitxoetan berrogeta hamar tona mea eroan eikezan. Kostu gitxiko garraiobidea zan, inbersino handirik eskatzen ez eban, orografiaren oztopoak erre gainditzen ebazana eta batez be arina, sano arina, tren errailbakar guztiak lez. Bediako, esaterako, probetan 180 kilometro orduko abiadura lortzeako gai ei zan.

Bediako trenbide errailbakarra "Lartigue" izeneko garraio-sistema zan.

### "Sociedad Minera de Yurre" eta meagintzako aristokrazia

Gurean, meagintzea burdinaren langintzeari lotutako ezinbesteko jardurea izan da aspalditik. Bediako Utxirain inguruan bertan topautako mendiko haizeolak burdinaren langintza zahar-zaharra erakusten dabe. Gerora erreka bazterretan kokatu ziran burdinolak etorri ziran, Arratia osoan zehar zabaldu ziranak. Ola horreek guztiak, ikatzaz gain, burdin-mea behar eben. Hasikera baten, gure arbasoak hurren eukien burdinaren bila joko eben, gure inguruko mendietan egoan burdinaren bila, hain zuzen. Toponimiak berak ondotoxo erakusten deusku non egon ziran meategi horreetako batzuk: Meagorri eta Minazuloeta (Zeanuri), Meatzeta

eta Minazuloak (Artea)... Baina Arratiako meategi horeek ez ziran oso aberatsak eta mea gehiena Somorrostro aldetik ekarten zan. Salbuespena Bediako meategietan topetan dogu. Horreek, Usansolo eta Arkotxakoak batera, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasikeran zelanbaiteko garrantzia eukan meatze ingurunea osotu eben. Horreek meategiok burdin-mearen ustiapen kapitalista moderno ahalbidetu eben, kanpoko inbersinoak erakarri eta industria-iraultzearen oinarriak finkau ebezan.

Bediako meategiak ustiatzeko "Sociedad Minera de Yurre" konpainia 1902an eratu zan Donostian, monarkiaren epelean,

Espainia eta Frantziako kapitalagaz. 300.000 pezetako hasikerako kapitala euki eban eta bere presidentea Alvaro de Figueroa y Torres izan zan. Berau Tovarreko markesa zan eta berehala Espainiako politikan hain eragin handia euki eban Romanones etxeko lehenengo konde bihurtu zan. Bere aita, Ignacio Figueroa Mendieta, extremadurarra jatorriz, Jaen eta Murziako berun meategiakaz aberastu eta, familia aberatsetan ohikoa zan lez, Espainiako nobleziagaz ezkondu zan, Alfonso XIII.ak Tovar markesadoko titulua emonaz.

Bediako pirita meategiak "Sociedad Minera de Yurre" konpainiak ustiatu ebezan.

### Bediako trenbide errailbakarraren anaia irlandarra

Goian aitatu dogun arrazoiagaitik ez dira asko izan "Lartigue" sistemeaz eraigitako trenbideak. Frantzian, Aljerian eta Australian be ibili ziran, ibili be, horree-

tako batzuk. Baina gure Bediako trenak euki eban anaiarik ospetsuena Irlandan, 1888. urtean sortu zan. Urte horretan, Listowel eta Ballyunion herrien arteko trenbide errailbakarra zabaldu zan bai bidaiariak, bai ganadua eroateko asmoz. Gainera, tren honek, Listowel-Ballyunion Railway deritxanak, gaur arte iraun dau, munduan iraun dauan sistema horretako tren bakarra. Gaur egun, oso-osorik ez, baina erabarrituta dago bertara hurre-ratzen diran bisitari eta turisten gozamerako, eta, dudarik ez, garraiobideen historiaren zati bitxi eta preziadua dala esan geinke.

Bediakoak ez eban zorte hori euki, urte gitxitan meategiak agortu ziran, bere onenak emon ebazalako, betiko galdu zan. Baina, ondo baino hobeto frogatu eban tren errailbakarrak etorkizuna eukiko ebela, garraiobide merke, arin eta eraginkorrak izan daitezkeza; gaur egun, hain justu, behar doguna.



Irudian tren errailbakarraren inaugurazio ekitaldia.

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

**ASESORIA  
Gorbeialde**  
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**www.alkizabal.net**  
**alkizabal@alkizabal.net**  
Zabalik 07:00 - 19:00

# ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
Amorebieta-Lemoa bidea  
Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26  
48330 Lemoa (Bizkaia)

**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala

- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
- Garraio zerbitzua.

**SEGA****Irati Astondoa Euskal Herriko txapela ekarten saiatuko da****Erredakzioa**

Hilaren 24an izango da Aian andrazkoen Euskal Herriko Segaxapelketa. Norgehiagokea Irati Astondoa zeanuriztarra eta Zizurkilgo (Gipuzkoa) Alazne Etxaburuaren artean jokatu da, Euskal Herriko erara, hau da, bedar kilo gehien mozten dauanak irabaziko dau txapela.

Igaz gipuzkoarrak irabazi eban, 30 kilo atera eutsazan Astondoari, baina markagailuari bueltea emoteko asmotan doa arratiarra. Izan be, aldaketa bat dago, igaz 20 minutuko iraupena izan eban lehiak, aurten, barriz, ordu erdikoa.

"Txapela ekarteko asmoa badaukat, ni saiatuko naz. Gero ikusi beharko da zer pasetan dan" dino segalariak.

**Irati Astondoa.****MENDIA****Gorbeia Suzien Mendi Martxan izena emon daiteke****Erredakzioa**

Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia Mendi Lasterketan parte hartzeako kupoa eta itxaron zerrendea beteta badagoz be, Mendi Martxan lekua dago oraindino. Martxa honetan ibilaldi bi dagoz: luzeak 29 km. ditu eta laburrak 22. Urri bigarrenaren 18an izango da martxea, lasterketearen egun berean, eta partaideak 07:30ean urtengo dira Zeanuriko plazatik. Abuztuaren 31ra orduko izena emon ezker partaideek diru gitxiago ordaindu beharko dabe. Martxea ez da kompetizinoa, lasterketea, barriz, Euskal Kopa eta Skyrunner National Championship 2014rako puntugarria da. Bagilean, izen emotea

zabaldu eta 9 egunetara agortu ziran dorsal guztiak (550).

**Gorbeia Suzien.**

Gorbeia Suzien Mendi Klubak lasterketea antolatuteaz gain, egitarau oso bat antolatu dau. Hiru egun lehenago hasiko dira motorrak berotzen berbaldi eta proiektzioen bitartez. Lasterketa eta martxa egunean, menditik bueltea egin eta gero, bazkaria, erromeria, afaria eta musikea egongo da.

**MENDIA****Txikon Trangoko Torre Handira****Erredakzioa**

Alex Txikon lemoaztarra, Ekaitz Maiz nafarra eta David Palamada "Pelut" katalana garagarriaren 24an urten ziran Bartzelonatik euren hurrengo erronkarako bidean. Trango-ko Torre Handia (6.296 m.) daukie jomuga oraingoan. Alex Txikonen behatzetako izozketak oraindino guztiz sendatu barik dagoz.

Karakorum mendikatean dagoz Trango Torreak eta sei mila me-

trotik gora dagoz igon beharreko orratzak, Baltoro-ko glaziarren ondoan. Munduko pareta bertikal altuenak dira, eta 2.000 metroko aldatzak eta 90°ko jaitsierak ditue. Bost eguneko aklimatazioaren ostean, hilaren 6an pareta eskaletan hasiko dira eta hogei egunetan eskaletako asmoa daukie. Hau ikusi ahal izango da Alex Txikonen webgunean, *streaming* bidez zuzeneko konexinoak egin-goz dabez eta. Horretarako 27 kiloko elektrizidade sorgailua eroan

behar izango dabe.

**Andra ukrainiar eta errusiarrak zabalduetako bidetik**

Marina Kopteva ukrainarrak eta Anna Yaniskaya eta Galina Chibito errusiarrak mendia ipar-mendebaldean 2011n zabalduetako *Parallel World* bidetik igotzen saiatuko dira Txikon eta bere espedizionokideak. Mendizale honeek bidea zabaldu ebentetik inork ez dau barriro egin bide hau.

Kopteva, Yaniskaya eta Chibito zailtasun handiko bide horren gaitik Errusiako Urrezko Pioleta jaso eben lehenengo andrazkoak izan ziran.

**Alex Txikon eta espedizionoko kideak.**

ARA MOTZ  
Lundegian O Jabetzen I  
Herri Ugarrena 2. et. - Arratia Dima - Bizkaia - www.ararimotz.com

Abel Lapatza Iza  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima  
946 317 252  
608 287 249

bbk

HERRIKO BENTAK  
HOSTAL  
HERRERO PLAZA  
48142 ARTEA (BIZKAIA)  
Tel. 94 631 72 56

**Gure Ikastetxeak**  
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igoerre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igoerre

Areatzako Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Baxilegoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.  
Berokuntza - Iturgintza - Gasa  
Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Fab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igoerre Bizkaia

RUGBY  
TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIAKO BIZKARRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

MENDIA

# Marimendikoak Bishorn mendiko tontorra zapaldu dabe

Suitzako Alpeetan dagoan Bishorn mendiak tontor bi ditu: mendebaldekoa (4.153 m.) eta ekialdekoa, Burnaby (4.134 m.).



Marimendi taldekoak.

Erredakzioa

Atzenengo hau da Elizabeth Hawkins-Whitshed-ek, Burnaby Andreak, zabaldu ebana. Marimendi taldekoak tontor biak egiteko helburuagaz abiatu ziran Bishorn mendira garagarriaren 18an.

Garagarriaren 25ean, egin eben Bishorn mendiko tontorra (4.153 m.). Burnaby tontorra, ba-

rriz, ezin izan eben egin eguraldi txarragaitik. 130 urte dira Elizabeth Burnabyk lehenengoz igo ebala.

Marimendi taldeko hamazortzi andra heldu ziran tontorrera, tartean, Arratiako ordezkartzea. Han egon ziran Miren Garbi Etxebarria; Nekane Intxaurtza; Iratxe Leiza; Bego, Lourdes eta Garbiñe Uriarte ahiztak, eta Tere Uribe-Etxebarria.

Aklimatizatorako talde bi

Garagarriaren 19an Verres-en gaua pasau ondoren, domekatik eguaz-tenera aklimatizatorako talde bi egin eben, Goiherri eta Beterri izenekoak. Garagarriaren 23an, Saas Grund-en batu eta alkarregaz abiatu ziran Burnaby tontorra 25ean egiteko. Lehen aitatu moduan Burnaby ezin izan eben egin eguraldiagatik baina bai Bishorn tontorra.

FUTBOLA

## XXVIII. Andra Mari Saria

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldearen Andra Mari Saria jokatuko da Igorreko Urbieta futbol zelaian, Andra Mari egunean eta

hurrengokoetan. Finala hilaren 17an, domekaz, izango da. Partidu guztiak arrastiko seiretan jokatuko dira.

Lehenengo partidua hilaren 15ean izango da eta bertan etxekoen jokoa ikusteko aukerea izango da, Arratiak Erandioren kontra jokatuko dau-eta. Hurrengo egunean, bigarren partiduan, Cultural de Durango eta Amorebieta neurtuko dira. Abuztuaren 17an, barriz, finala jokatuko da.

ANDRA PROBAK



Zeani andra proba taldekoak harriari tiraka.

## Bere lehenengo txapelketea jokatuko dau Zeani taldeak

Erredakzioa

Orain dala hiru hilabete sortu zan Zeani, Zeanuriko andra proba taldea eta garagarriaren 27an jokatuko eben eurentzat lehenengo txapelketea izan dana. Villabonan (Gipuzkoa) izan zan, Santio Txapelketea hain zuzen be, eta hirugarren egin eben bertan.

Lau taldek hartu eben parte, Ibarra, Orio, Astigarraga eta Zeanurikoak eta Ibarakoak irabazi eben 40 unte eginda, bigarrena Orio izan zan, 39 untezagaz. Zeanuriztarrak Astigarragakoai aurea hartu eutseen, 34 eta 32 unte egin ebezan-eta honeek, hurrengoz hurrengo.

Zeani taldeko kirolariak pozik dagoz, Villabona plaza gogorra zan eta. "Txapelketea pisu librean zan eta

ikusitako genduzanean hareek andra zatiak, bildurtu egin ginan apurtxo bat. Dakiguna erakutsi genduan, eta guretzat be sorpresea izan arren, Astigarragako Emariaren aurretik amaitu genduan" azaldu deutso BEGITU irati Astondoa Zeani taldekoak.

Hain ibilbide laburrean holango emoitza izateak jarraituten lagunduten deusela dino Astondoa. "Ikusita ahal dogula, hurrengo urtean ondino gogo handiagoagaz urtegarra".

Bilboko Aste Nagusian

Bilboko Aste Nagusian be egongo dira zeanuriztarrak erakustaldi bat egiten. Mendaroko nesken kontra eta gero gizon talde baten kontra neurtuko dira. Zitea, abuztuaren 22an, goizeko 12:00etan, Arenalean da.

# www.begitu.org

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
begitu@topagunea.com



**BIZARGINAK**  
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu  
Bixarra egin eta txukunduten dogu  
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543  
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendiolueta, 3 • 48530 LEMCIA, Bizkaia  
Tel: 609 480 830 / fax: 609 900 717

**ZEKUTZE**  
JATETxea  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel: 94 631 52 83  
zekutejateak@hotmail.com

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**KIRRU • ILEAPANDEGIA**  
**SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo • 48140 IGORRE (Bizkaia)  
☎ 94 631 92 00

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3 • 3a ☎ 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

**GESOREAK**  
**basolo Emaldi**  
FOTEN ADMINISTRAZIOA  
Abokatuak  
☎ 620. 57.86.04  
osierabasolo@hotmail.com  
Bilbao-Zeanuri

**umean made**  
**sem**  
0-10  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnos. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

Gogoratu leku barrian gagozala

## KAROBIA

# San Justoko karobia barrero ketan ipiniko dabe zapatuan, abuztuaren 2an, 11:00etatik aurrera

Juan eta Julian Aranagaz batera, Mallorca eta Madriletik etorritako FICAL alkartearen ordezkariak isiotuko dabe.



**Kareharria, egurra eta sua nahasten dira karobian.**

**Argazkia: J.M. Arruabarrena.**

## Jon Urutzurto

Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, *Forum Ibérico de la Cal* (FICAL) alkarteko ordezkariak —Mallorca eta Madriletik etorritakoak— isiotuko dabe San Justoko karobia abuztuaren 2an, zapatuan, goizeko 11:00etan, eta urteetan zehar ahaztuta eta amatauta egon dan ke zurixkea San Justoko haretzen artean igongo da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Domeka eguerdirantz, kare bizia oka egiten hasiko da labe-agoa.

Orain dala hameretzi urte berres-

kuratu eban Ipizki Taldeak, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, 1950etik bertan behera itxita eta hondatuta egoan San Justoko karobia, eta ordurik hona, hutsik egin barik, urtero, abuztuaren lehenengo astegoienean martxan ipinten dabe. Igaz, Moron de la Fronterako (Sevilla) Karearen Museotik etorritako ordezkariak isiotu baeban kare-labea, aurren Mallorcatik eta Madrildik Zeanurira etorriko dan *Forum Ibérico de la Cal* (FICAL) alkarteko sei bat lagunek ospotutako ordezkariak izango dau protagonismo berezia karobia sutan ipinteko ekitaldian, Juan eta Julian Aranagaz batera. FICAL alkarteak kareagaz zerikusia daben profesional desbardinak —ekoizleak, zaharbarritzaileak, eraikitzaileak, unibersidadeko irakasleak...— batzean dauz, material honen inguruko ezagutzak partekatzeko. Bere helburu nagusia honako hau da: karearen ekoizpenaren eta erabilerearen ikerketea, formakuntzea eta hedapena bultzatzea.

Karobia isiotu ostean, hamaiketako egongo da San Justora hurreratzeko diran guztientzat: urdaia, pamitxea eta ardaia. Bestalde, 14:30ean, auzo-bazkaria egingo da San Justoko harexpean. Bazkari herriko horretan edozeinek parte hartu daike, aurretik izena emonda.

## Mezea, Paella Txapelketea eta bola jokoa

Hurrengo egunean, abuztuaren 3an, domekan, San Justoko erromeria ospatuko da. 12:00etan mezea izango da. Mezearen ostean maiordomoak barauskarria —ardau zuria eta gailetak— bananduko dauz jentearen artean eta jarraian Paella Txapelketea izango da.

Eguraldia lagun eta ohiturea jarraituz, asko izango dira da San Justoko harexpean bazkaltzen geratuko diranak, eta arrastian 17:30etik aurrera, Bola eta Mus Txapelketetan parte hartzeako aukera izango dabe.

## San Justokoa, karobi frantsesa

San Justokoa karobi frantsesa deritxana da, hau da, kontraterrenoa aprobetxatuz eragindakoa. Apurka-apurka estutzen dan zulo bat da, 4 metroko sakonera daukana, eta 150 zentimetroko zabalera goiko aldean eta 40koa behekoan.

Kare labe frantsesak era honetan egiten dabe behar: erregai funtzinoa jokatzen dauan egurrez beteten dira, gero, gainean, kareharria ipinten da eta sua emoten jakie. Harria errez kare bihurtzen da eta karea egin ahala, egurrez eta kareharriz kargetan da karobia. Lan horrek hainbat lagun beharra eskatzen eban, horregaitik hiru-lau etxe alkartzuz edo auzolanean egiten zan.

noanez, "Juan eta Julian Aranaren gidaritza barik ezinezkoa izango jakun karobia berreskuratzea eta martxan ipintea, eurak izan ziran 1950ean leku berean atzen aldiz karea egin ebenetako bi eta eurak dira gure maisuak. Gainera, urtero erantzuten deusie karobia martxan ipinteko ekitaldiari eta aurren be hor egongo dira. Felix Goikuria (+) be, ezinduta egon arren, urtero etorten zan San Justora bere aholkuak emoteko".



**Juan eta Julian Arana, maisuak, eta Igor Intxaurraga, ikaslea.**

## Juan eta Julian Arana maisuak

Orain dala hemeretzi urte jarri eban martxan, 1950etik bertan behera itxita eta hondatuta egoan karobia Ipizki Taldeak. Horretarako, urte haretan eta toki berean atzenengoz karea egin eben Juan eta Julian Aranagaz hartu-emonetan ipini ziran Ipizkikoak, eta euren zuzendaritzapean konponketa eta zaharbarritze beharri ekin behar izan eutseen bi hila-betetan zehar, kare labea ketan jarri aurretik. Ordurik hona, hutsik egin barik, urtero, abuztuaren lehenengo astegoienean martxan ipinten dabe.

Otzerinmendi auzuneko Goikuria eta Arana familiak, Kandido (+) eta Felix (+) Goikuria anaiak alde bate-tik, eta Juan eta Julian Arana bestetik, izan ziran 1950ean leku horretan atzen aldiz lan egin ebenak. Juan eta Felix labea zaintzeaz eta karea egiteaz arduratzen ziran bitartean,

## JAIK

## Auzuneetako jaiak



**Artaun auzunea.**

### Erredakzioa

Dimako Artaunen eta Zeanuriko Otzerinmendi ospatuko dabez jaiak abuztua hasteagaz batera. Otzerimendiko San Juston karobia biztuko dabe Ipizkikoak hilaren 2an eta ospakizunak astegoienean osoan izango dira. Dimako Artaun auzunean be, San Bizente jaiak ospatuten dabez fetxa horreetan.

Hilaren 10ean, San Lorentzo eguna da eta Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabez sanlon-toak.

Abuztuaren erdiko andramariak Igorren eta Zeberioan ospatuko dabez. Igorren, "udako jaiak" izenagaz be ezagutzen da jai hau. Hurrengo eguna, San Roke eguna da; jaiak Dimako Olazabalen eta Bediako Eroso-Ugarten dira. Hemen, ospatuteko, mezea San Roke ermitan, hamaiketako, trikitixea eta jantzak egongo dira.

Sanbartolomeak, barriz, hilaren atzenetan, Igorreko Urkizun eta Zeberioko Uxarren ospatuko dabez.

### Artaun (Dima)

#### Abuztuak 2, zapatua

**19:30**ean, txupinazoa eta jaien hasikerea.

**19:30**ean, txixi-burduntzia. Urdaia eta pamitxea hurreratzeko diran guztientzat.

**20:30**ean, Bola Txapelketea, XVI. Lourdes Sorluzze Saria.

**22:00**etan, gau jantza Alai taldeagaz. Atsedendian Mozorro Lehiaketea.

#### Abuztuak 3, domekea

**12:00**etan, euskal mezea.

**13:00**etan, triki-poteoa.

**19:00**etan, herri kirolak. Harrijasotzaileak Jon Gisasola "Zelai IV" eta Urdax. Aizkolariak. Bizkaia: Aitzol Atutxa-Julen Larrea. Gipuzkoa: Mugerza Anaiak.

**20:30**ean, zozketea.

#### Abuztuak 4, astelehena

**11:00**etan, auzoan hildako guztien aldeko mezea.

**12:30**ean, umeentzako jolasak eta antzerkia.

**12:30**ean, Mus Txapelketea.

**17:00**etan, Briska Txapelketea.

**19:00**etan, Tortilla Txapelketea.

**20:00**etan, Ugel Txapelketea.

**21:00**etan, jaien amaierara eta auzokoentzako txokolatea.

### San Lorentzo

#### Murtatza (Bedia)

#### Abuztuak 10, domekea

**12:00**etan mezea Murtatzen. Ostean barauskarria eta trikitixea.

Mus Txapelketea.

**17:00**etan, Briska Txapelketea.

### Azurreka (Lemoa)

#### Abuztuak 10, domekea

**12:00**etan, mezea.

**13:00**etan, barauskarria txistulariak.

**18:00**etan, umeentzako jolasak.

**19:00**etan, Ugel Txapelketea.

**20:00**etan, karretila entrenamentua.

**21:00**etan, Karretila Txapelketea.

### Andra Mari

#### Udako Jaiak (Igorre)

#### Abuztuak 15, barikua

**10:30**ean, Gazte mailako ziklista lasterketea. XXXVII. Andra Mari Saria. Agirre Lehendakarian hasi eta amaitu.

**12:30**ean, mezea.

**13:15**ean, barauskarria goiko plazan.

**16:30**ean, Briska Txapelketea bikoteka. Beheko plazan.

**18:00**etan, Ugel Txapelketea. Beheko plazan.

**19:00**etan, erromeria Jokaldi taldeagaz. Beheko plazan.

Txokolatea danontzat.

### San Roke

#### Olazabal (Dima)

#### Abuztuak 15, barikua

**12:30**ean, Txakoli Eguna.

#### Abuztuak 16, zapatua

**12:00**etan, Meza nagusia.

**13:00**etan, umeentzako jolasak.

**13:30**ean, Bola Txapelketea.

**18:00**etatik **20:00**etara, umeentzako jaiak.

**19:30**ean, herri kirolak edo antzerkia.

#### Abuztuak 17, domekea

**12:00**etan, mezea.

**14:00**etan, auzo bazkaria.

## LEHIAKETAK

### Postal Lehiaketea Bedian eta Ipuin Lehiaketea Diman



#### Erredakzinoa

BEGITUKO Argazki Lehiaketa eta Areatzako Jaietako Lehiaketez gainera, Bedian Postal Lehiaketea dago zabalik urri lehenengoaren 12ra arte. Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketara lanak bialtzeko epea urri lehenengoaren 1ean edegiko da.

Bediakoa lehiaketeak Euskara eta Euskaldunak Munduan Postal Lehiaketea dauka izena eta izenak berak adierazoten dauan moduan, biak edo oporrak dauka gaitzat. Postalak, izenburua, argazki edo irudi bat eta euskerazko testu labur bat izan behar ditu. Hiru kategoria dagoz: 7 eta 12 urte bitartekoa, 13 eta 17 urte bitartekoa eta 18 urtetik aurrerakoa. Kategoría bakotxako irabazleak Elkar-eko dendetako baten gastetako opari txartel bat jasoko dau, 20 euro, 30 edo 60 eurokoa, hurrengoz hurrengo.

#### Diman Ipuin Erotikoen Lehiaketea

Dimako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketan parte hartzeako, urri lehenengoaren 1etik 22ra, kultura.dima@bizkaia.org helbidera bialdu daitezke narrazioak. Hiru sari emongo dira. Lehenengoa 600 euro, bigarrena 400 eta Arratiako onenarentzat 250 euroko saria.

## TXOTXONGILOAK

### Txotxongilo erraldoi bi gehiago egin dabez Areatzako tailerretan



Leon, Fasio eta Maurizien txotxongiloak Lekeition.

#### Erredakzinoa

Arratiako jantzari bikotea irudikatzen dabezan txotxongiloak bost dira Areatzako tailerretan egindako marioneta erraldoiak. Igaz, Arratiako trikitixa osotuten eban Maurizia, Leon eta Fasioren txotxongiloak egin ebezan eta aurten "Madalen eta Bartolo" izeneko txotxongilo erraldoi barriak. Lehengo hiru musikarien alboka, triki eta panderoaren doinuen konpasean jantzan egingo dau bikote barriak.

Auzolanean eta Maurizia, Leon eta Fasio txotxongiloak egitekoan ikasitakoa praktikan ipinteko, Areatzako Udalak txotxongilo barriak egiteko proposamena egin eban. Tailerretan hainbat arratiarrek eta Bizkaiko beste herri batzuetatik etorritakoak jardun dabe bikote jantzaria egiten. "Holango ekimen parte hartzaileak, auzolana bultzatzen dabe, formatzaileak dira eta sormenerako aukerea emoten dabe. Gainera, herriarentzat kultur-ondarea sortzean dabe. Horregaitik Udaletik ekimen honek bultzatzeko eta lagunduteko prest agertu gara hasikeratik" dino Sara Gutierrez zinegotziak.

Areatzako Udalaz gainera, Artea

eta Igorreko Udalak be lagundu eban Maurizia, Leon eta Fasio txotxongiloak egiteko tailerretan antolatutuen igazko zemendian. Orduan, "Les Grandes Personnes" txotxongiloin konpainiak Areatzara etorri ziran txotxongiloak egiten irakasten. Bederatzi egunetan, 30 bat personak egin eban behar eta emoitzea Maurizia Leon eta Fasio hirukotea izan zan.

Areatzako erraldoi eta buruhandien mantenimendu beharrek eskulan tailerretan egiten dabez 1997tik. Urte haretan, eskulan taldean egozan andrak erraldoiak konpondu eta barrizatu ebezan. Lau dira Areatzako erraldoiak: udatiarrak (Cotorruelo eta Doña Carola), txistularia eta aña. Ondoren buruhandiak be barrizatu ebezan eskulan taldekoak eta gero "Askatu" Areatzako maskota euskalduna egin eban. "Orain,

#### Areatzako tailerretan

#### Madalen eta Bartolo

#### izeneko txotxongilo

#### barriak egin dabez

bost txotxongilo erraldoiak kultura ondare hau aberastuteko sortu dira" dinoe Gutierrezek.

#### Konparsea sortu guran

Personaje honek guztiak kale animazio ekimen politak egiteko aukerea emoten dabe, baina jantzan ipinteko taldea eta ikusizuna koordinetako arduradunak behar dira. Horretarako konparsea bat sortu gura dabe Areatzan eta Udalak "laguntza osoa" eskeinito deusela herritarri dinoe udaletik.

Bagilatik aurrera, txotxongilo erraldoiak parau barik dabiz kale ikusizunak egiten: Ibilaldian Gernikan, Zeberioko Maurizia eta Leoneri omenaldian, Igorreko jaietan, Bilboko Gau Zurian, Zarauzko Kale Antzerki jaialdian, Lekeitioko "Gure musikari handiak" ikuskizunean edo Amorebieta-Etxanon izan dira Areatzan sortutako txotxongiloak. Hurrengo zitak, hilaren 17an, Bilboko Aste Nagusiko balearen desfilean; abuztuaren 24an, Areatzako jaietan 12:30ean; urri lehenengoaren 13an, Beasainen Igartzako jaialdian; urri lehenengoaren 20an Artean, Merkatea azokan eta urri bigarrenaren 26an, Areatzako Euskal Jaian izango dira.

## AISIA

### Saharako umeak arrastipasa Zeberion



Umeak Zeberion.

#### Erredakzinoa

Oporrak Bakean programearen barruan, Urduñako udalekue-tan dagozan Saharako umeak, garagarilaren 24an Zeberiora hurreratu ziran bisitatxo bat egiten. Zeberioko herrria 2001etik Eydeiriagaz senidetuta dago eta ume horreei harrerea egin jakien udaletxean eta gero askaria eta bits jaija eskeini jakien.

Eydiria Smara inguruan dagoan kanpamentu bat da eta honegatz dago senidetuta Zeberio. Urtero umeai harrerea egiten jakie. "Umeak Urduñan dagoz, urterik urte lekua topetan ibiltzen dira eta igaz eta aurten Urduñako mojetxe baten dagoz. Mojak erdi hutsik daukiela eraikina eta eskeintzen deutsee debalde eta han dagoz, oso pozik" azaldu deutso BEGITURI Ana Belen Alberdi Zeberioko alkateak.

Umeak lehen familietara etorten ziran uda pasetako, baina atzenengo urteetan horretarako prest egozan familiak jeitsi egin ziran eta Oporrak Bakean programea hasi dira antolatuten, beste eredu bategatz: udalekuak. "Horretan hasi ziran gu eurek hartu-emonetan ipini ginan; horretarako dirua behar eban eta guk bageunkan aurrekontuetan Eydiriarri laguntzeko dirutxo bat. Diru hori horretarako erabilten da, udalekuak antolatu ahal izateko" dino alkateak.

## ERAKUSKETEAK

### Gorbeia erakusketarako bisitaldi gidatuak luzatu egin dira

#### Erredakzinoa

Bilbon dagoan Foru Liburutegiko "Gorbeia, Historia eta Kultura" izeneko erakusketak orain arte izan dauan arrakasteari esker, bisita gidatuak erakusketara dagoan

bitartean mantenduko dira, hau da, urri bigarrenaren 18ra arte. Zapaturu, eguerdiko hamabietan izango dira bisitok, erakusketaren komisarioa dan Iñaki Garcia Urriben eskutik.

Bagilearen 17an zabaldu eta

bagilea eta garagarrila bitartean, gaiagatz lotutako zazpi berbaldi egin dabez Foru Liburutegian, Ainhoa Larrazabal Zeanuriko kazetariak aurkeztu eta moderata. Abuztuan berbaldirik ez dago, baina bisita gidatuak mantenduko dira.

Gorbeia eta bere inguruaz aztertzen 20 urte baino gehiago daroazan Iñaki Garcia Urribek koordinatu dau erakusketa hau eta bertan koadroak, argazkiak, liburuak, maketak eta mapak bilztean dira.



## AGENDEA

ABUZTUAK 1  
LEMOA

16:30ean, esku pelota partiduak, Txutxin Txapelketaren finalak. 19:00etan, baltsen jeitsiera Ibaizabaetik. Urtekerea Talleretako zubian izango da eta helmuga zubi barrian. Urtekerak binaka egingo dira. 20:30ean, Arrantza eta Ehiza alkarteak sardina jana eskeiniko dau. Elizondon. 22:30ean, 12 urtetik beherako lemoztarren Play-back Lehiaketea Elizondon. 23:30ean, Gose taldearen kontzertua Elizondon. 01:00etan, 12 urtetik gorako lemoztarren Play-back Lehiaketea Elizondon. 02:00etan, Izerdi Corniak taldeagaz erromeria.

Auzolandegiak. Bigarren txandea hilaren 15era arte.

## DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko kontzertuzina plazan.

## IGORRE

Urri lehenengoaren 27tik urri bigarrenaren 7ra Jubiladuen Alkarteak antolatuta, Saloura egingo dan biajea izena emoteko epea zabalik.

ABUZTUAK 2  
AREATZA

09:30ean AEKren Bameategi ibiltaria hasten da. Hilaren 16ra arte. Gorbeia-Hiru Erregeen Mahaia.

## LEMOA

11:00etatik 14:00etara, ume eta gazteentzako puzgarri parkea eta jokoak eskoletan. 14:15etik 14:45era, Bits jaia eskoletan. 13:30ean, Paella, Tortilla, Gisatu eta Bakailao Lehiaketetako lapikoen aurkezpena. Ondoren herri bazkaria eskoletan. Bazkarirako, Jai Batzordeak mahaia, jateko tresnak, ogia eta ura ipiniko ditu. 17:00etan, umeentzako tailerrak eta jolasak Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta, eskoletan. 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak. 19:00etan, Kuadrilen arteko "Rally umoristikoa" musikatua. Jubiladuen taberna hasiko da. Erropa zaharra eroan behar da. 23:00etan, DJ-a Elizondon:

Zigor DZ. 23:30ean, Esne Beltza taldearen kontzertua Elizondon. 01:30ean, Trikiario taldeagaz erromeria Elizondon. 05:00etan, barauskarria Elizondon. Oharra: 02:30ean eta 04:30ean, Arratiako herrietatik pasauko diran bueltako autobusak. Urtekerea Correos-etik.

## DIMA

Jaiak Artaunen. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

## ZEANURI

11:00etan, Karobia isotutea eta ostein hamaiketako Otzerinmendin. 14:30ean, auzo bazkaria.

ABUZTUAK 3  
LEMOA

19:30ean, Eusko Label okeleagaz egindako

hanburgesa dastaketea Elizondon. Pintxoak 1,5 eurotan salduko dira eta jasoten dan diru guztia StopSanfilippo Fundazioarentzat izango da. 22:00etan, "Garsu" erre Elizondon.

## ZEANURI

12:00etan, mezea San Justo ermitan. Ostein, barauskarria. 13:30ean, paellen aurkezpena. 17:30ean, Bola Txapelketea eta Mus Txapelketea.

ABUZTUAK 10  
BEDIA

12:00etan mezea Murtatzen. Ostein barauskarria eta trikitixa. Mus Txapelketea. 17:00etan, Briska Txapelketea.



## Antonio Aldamaren margolanak Zeanurin

"Zeanuri" izenburupean, Antonio Aldama margolari ezagunaren lanak egongo dira ikusgai abuztuaren 8tik 17ra bitartean, Materolatarren erakustokian, Zeanuriko Arregia auzunean, Kultur Etxearen parean.

Lanok herrialdearen irudi bizia eskeintzen dabe bertan sartu barik; biztanleria zelangoa dan be inguruak erakusten dau. 40 piezak osotuten dabe erakusketea eta hilaren 8an, arrastiko 20:00etan zabalduko ditu atea.

Felipe Manterola argazkilaria sendiak artisteari baimen osoa emon deutso bere argazki artxibora sartzeko. Aldamak artxiboko argazki honek erabili ditu erakusketa honetan erakutsiko dituan hainbat margolan egiteko. Felipe Manterola "berbiztu" egin dala esan daiteke, Aldamaren inspirazioa izan da eta.

## LEMOA

Azurreka auzunean. 12:00etan, mezea. 13:00etan, barauskarria txistulariakaz. 18:00etan, umeentzako jolasak. 19:00etan, Ugel Txapelketea. 20:00etan, karretila entrenamentua. 21:00etan, Karretila Txapelketea.

ABUZTUAK 13  
ZEANURI

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 14  
AREATZA

Astronomia saioa Parkeak antolatuta. Astronomiari hurbilketea eta zeruaren zuzeneko behaketea. Enkarrietako Astronomia Elkarte Betelgeuse.

ABUZTUAK 15  
DIMA

Jaiak Olazabalen. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

## IGORRE

Udako jaiak. Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Arratia-Erandio.

## ZEBERIO

Jaiak Zeberioan.

ABUZTUAK 16  
BEDIA

12:00etan mezea San Roke ermitan. Hamaiketako, trikitixa eta jantzak.

## IGORRE

18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Cultural de Durango-Amorebieta.

ABUZTUAK 17  
IGORRE

18:00etan, futbola. Andra Mari Saria. Finala.

ABUZTUAK 20  
LEMOA

Gazteentzako biajea Europatik 28ra arte.

ABUZTUAK 23  
AREATZA

Herriko jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ABUZTUAK 26  
AREATZA

22:15ean, Musikasua. Kontzertua eta su artifizialak. Sakramentinoen parkean.

ABUZTUAK 28  
ZEBERIO

Zeberioko jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

## IRAGARKI LABURRAK

## SALDU

## AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Inigo).

HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA  
SALGAI

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l\_jaztana@hotmail.com.

## UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta maxicosia saltzean dodaz neguko eta udako fundeagaz. Interesautazagozenak 616 799 356 telefonora deitu (Laura).

## VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeko kapazidatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

## EROSI

## TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinu erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

## DANERIK

## TRASTELEKU BILA

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

## PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukaldea, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1 Axpe Goikoak emondako txakolin kutxatxoak.**

Bihotz Gorospe (Igorre)



**2 Gorbeia Suzienek emondako kamiseta bana.**


Begoña Pedrosa (Areatza)  
Maidier Martinez (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 12 urte eta ehundaka lagun.

## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Kontuz. Gertatu. 2.- Birritan, gar-gar. Tik..., erlojuaren hotsa. 3.- Segidu. Helioren sinboloa. 4.- Berrogeta hamar erromatar. Barrena. 5.- Gaixorik gagozanean daukagu. 6.- Lurpe. Boroa. 7.- Amerizioa. Zorro. 8.- Limiteta. Galdetzaila. 9.- Enbudo. Zeozer erretan danean.

### GOITIK BEHERA

1.- Ez bero ez hotz. Ogi biribila. 2.- Nondik atzizkia. Amorru. 3.- Urdindura. Musika notea. 4.- I letrearen ondoren. Gab, ozta-ozta. Letra bat. 5.- Atadian, kanpoan. Dana dala. 6.- Edadeko. Greziako ugartea. 7.- Makur. Kasket.



Topau zazpi euskal musika talderen izenak.



# AKI MI KO

Igorren  
Menika



**Igorren**  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**begitu**  
arria ubide zerbeto

**BIXER**  
**TABERNA**

Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

**Orrie**  
FOTOKOPIAK - PAPERBENDA

L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) - Tfnoa.: 94 673 64 25

**NAIARA** Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea

Zornotza - Tfnoa 649 86 95 36

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak

Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94

**Esposizinoa eta fabrikea Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**GARANTXE**  
Autoeskola

TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ

Raimonak: A1, A, B7E, B

Lehendakari Agirre 34  
Tfnoa.: 94 673 71 52  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garante@autoeskola.net

**AKETEGIA**  
**GAV 35 LORA**  
**IGORRE**

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONTUTAN  
ONDARUN HIGAZTINEN  
ASIGURUTAN

Salme Arria, 3 Tfnoa. 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 71 41 - 4148 (Gorri)

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERRITZUAK

Garbe, 29 - Telefonoa: 94 673 60 54 - IGORRE-BIZKAIA

**axular**  
kultza-olantza

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.l.**  
CONSTRUCCIONES

Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

**L**

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta eskaintza zain erdoras

Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 63  
e-posta: unida.A@euskalnet.net

## ITSASO ETXEBARRIA SANTAMARIA

**"Areatzako igerilekuetan ez da inoz ezer larririk gertatu"**

Ale honetako alkarrizketari ezagun jako eguzkipean ordu askoan egondakoa dala. Ez gora begira ostera, behar baino. Itsaso Etxebarria Areatzako igerilekuetako soroslea da Iker Atutxagaz batera. Tensinoan batzuetan, aspertuta besteetan; denporea lez gaur euri eta bihar eguzki, baina Areatzako gaztea gustura dago ur ondoan.

**Irati Urien****Noz hasi zinan sorosle lanetan?**

Bigarren urtea daroat Areatzako igerilekuetan sorosle moduan behar egiten. Titulua orain dala hiru urte atera neban.

**Zelan doa 2014ko uda?**

Apur bat aspergarria izaten dabil. Eguraldi lar ona be ez dau egiten. Bagilean eguraldi ona egin eban eta nahikoa lan euki genduan. Garagaila hasi zanean ostera, eguraldi eskasagaz batera behar gitxi. Eguraldi ona egiten dauanean, igerilekuetan behar baino egoten naz eta ez naz aspertuten. Pentsetan dot eguraldi ona egiten dauanean jentek hondartzara joateko aprobetxetan dauala igerilekuetara etorri beharrean.

**Zelan antolatuten zarie Iker eta zu?**

Bi egun 7' erdi egiten doguz. Adibidez ni astelehenean hasten naz behar egiten, orduan astelehen guztia,

martitzen guztia eta 15:30ak arte eguazten egun erdia egiten dot. Iker ordu horretan sartuten da eta ez da urtetan barikura arte. Astelehenean behar baino hasi danak asteburua be egiten dau. Holan antolatuten gara, bestela sano gogorra egiten da.

**Zer behar da sorosle izateko?**

Lehen Sorospenak titulua Gurutze Gorrian atera neban. Gero Erandion Uretako Soroslea izateko titulua atera neban. Lehenengotik Lehen Sorospenak egin behar da beti, oinarri bat euki behar da. Behin hori eginda, Uretako Soroslearen titulua ateraten zoazenean ezagutza guzti horreek garatuten dira, eta igerilekuan kasu errealek egiten erreskateak praktikan ipintzen dira.

**Gogor egin jatzun titulu hori ateratea?**

Ni kirolaria naz, galapan egiten dot, orduan, egia esan, ez asko. Gainera prestatu be egin nintzan. Gimnasio-

an egunero hiru ordu laurden egiten nebazan; kardioa, besoak gogortuteko ariketak, gehi hankak landutekoak. Amaitu ostean igerilekura joaten nintzan ordu erdi edo gehiagoan uger egitera.

**Bero handia egiten dauanean eukiko dozu bustiteko gogo. Sartu daiteke soroslea uretan?**

Danak etorten jataz esanez "Itsaso zegaitik ez zara sartuten?" Nik zeozer pasetan ez bada ezin nazala sartu esaten deutset. Adibidez lehengo baten sartu behar izan nintzan, baina sartu-urten bat. Kamisetea kendu, frakak kendu, bota eta urten. Hori jente asko ez dagoanean egiten dot, 14:30-15:00ak inguruan. Dutxau zeintekoz, baina ez da bardina.

**Anekdotak txarrak akorduan?**

Ez. Niri pasetan jata ume bat igerileku erditik kantsauta ikusten dodanean beti ertzetik bere erritmora joaten nazala. Gertaera txarrak ekiditen dodaz. Igaz ia-ia ume bat aterateko bota egin behar izan nintzan baina eskua luzatu neutsan eta hartu egin eustan. Areatzan ez da pasau ezer larririk inoz.

**Baten bat itoten dan jagoten ibiltetik aparte zer egin behar dau sorosle batek?**

Nik konfiantza eduki ezker, umeai galdetuten deutset ia krema emon daben. Digestinoa be asko zainduten dot eta ume guztiak esaten deutset. Batzuek tripea kokotea eta eskumuturrak bustiten dabez eta segiduan sartuten dira. Lehenengo sartukerea apurka-apurkako izan behar da. Digestinoa moztearena ez da bazkal ostean bakarrik pasetan. "Digestinoa moztu" esaten dogu, baina ez da hori pasetan dana. Gorputz beroa ur hotzetan sartzean danean, horrek eragiten dauan kon-



Areatzako igerilekuetara etorteko ohitura, izan be oso ondo dagozala pentsetan dot.

**Gustora igarten jatzu behar honetan.**

Bai, sano. Pasetan dana da batzuetan kokoteraino amaituten dozula jentea errez hasarratuten dalako. Pentsetan dot guk, bai Ikerrek eta bai nik, oso ondo egiten dogula gure beharra. Pozik gagoz, sano gustura, pare bat kenduta, jentea be gustura dago guz, baina leku guztietan dago personaren bat ez dagoana ados egiten dozun beharragaz. Horren aurrean egin behar dana da beharra ahal danik eta ondoan egin, behar hori egiteko konpetentea zarala erakutsi, persona egokiena zarala. Atzenean sokorrista bat ondo konpondu behar da bertara doan jentegaz.

**Datorren urtean leku berean egoteko asmoa daukazu?**

Bai. Pilo bat gustetan jata sorosle beharra. Jente askok pentsetan dau sokorrista izatea eguzkia hartuten egotea dala eta ez da holan. Erantzukizun bat daukagu. Edozein personak ez dau balio sorosle izateko. Pazientzia asko euki behar da, gauzak esaten jakin behar da, eta, gauza bat argi euki behar da: zeu zara igerilekuan aginduten dauan personea, zeu zara jefea, jentek zuri egin behar deustu jaramon. Hori da soroslearen lana, personak jagotea, danok gustura egotea eta istripurik ez egotea.

**Noz daukazuz udako oporrak?**

Ez daukaz. Hori bai, urri lehenengoan mutilagaz joaten naz eta itzelezko bajea egiten dot. Bestela udan hondartzara joatea asko gustetan jata, eta denpora ona egin ezker, librean dodazan egunak aprobetxetan dodaz hondartzara joateko.

# ESKAINTZAK

## UDA 2014

BELARRA MOZTEKO MAKINAK

**299 € TIK**

HESKAI-MOZTEKOA

**119 € TIK**

MOTOZERRAK

**199 € TIK**

Bakarrik aurkituko dituzu

ZURE STIHL DENDA

ESPEZIALIZATUAN

**STIHL**

**VIKING**

**GARAJE FELIPE**

Garbe 2. Igorre (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 673 63 39  
garajefelipe@euskalnet.net

Montorra z/g. Amorebieta (Bizkaia)  
Tel./Faxa 94 630 90 39

[www.garajefelipe.es](http://www.garajefelipe.es)